

Euskal AEko produktu ez-energetikoen esportazioak 2021eko urtarrilean % 5,7 jaitsi dira

Energia-esportazioen bilakaera negatiboak (-% 66,5) guztizko esportazioek % 12,4 atzera egin izana ekarri du

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ondasunen **esportazioak** (1.724,6 milioi euro) % 12,4 jaitsi ziren 2021eko urtarrilean, aurreko urteko hil beraren aldean. Esportazioetan, produktu energetikoen esportazioek nabarmen egin dute behera (% 66,5), eta produktu ez-energetikoen esportazioek, berriz, behera egin duten arren, % 5,7 egin dute behera.

Bestalde, **inportazioek** (1.362,1 milioi) % 13,5 egin zuten behera, produktu energetikoak % 38,3 jaitsi baitziren eta ez-energetikoak % 3,8.

Hala eta guztiz ere, merkataritza-saldoa positiboa da (362,6 milioi), eta 126,6ko estaldura-tasa sortu du, ehuneko puntu eta erdi handiagoa 2020ko urtarrilean erregistratutakoa baino.

Lurraldeka, Bizkaiak izan du esportazioen portaerarik txarrena, esportazioak % 14,5 jaitsi baitira, esportazio energetikoek behera egin dutelako (-143,6 milioi, % 66,8ko jaitsierarekin). Energia-esportazioaren atzerakada hori, funtsean, honako produktu hauetan kontzentratzen da: "Oktanaje baxuko gasolinak (<95)", "Sufre kantitate handiko gasolioa (>% 0,1 pisutan)", "Sufre kantitate handiko fuel-olioa (>% 0,5 pisutan)" eta, neurri txikiagoan, "Olio lubrifikatzaile bereziak" eta "Petrolioaren betuna"; hala ere, hazi egin dira "Oktanaje ertaineko gasolinak (>95 eta >98)".

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2021 urtarrila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila			Urtarrila		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.968.561	1.724.632	-12,4	1.573.842	1.362.077	-13,5
PRODUKTU ENERGETIKOAK	215.279	72.036	-66,5	441.513	272.564	-38,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.753.283	1.652.596	-5,7	1.132.329	1.089.513	-3,8
URTEKO METATUA	1.968.561	1.724.632	-12,4	1.573.842	1.362.077	-13,5
PRODUKTU ENERGETIKOAK	215.279	72.036	-66,5	441.513	272.564	-38,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.753.283	1.652.596	-5,7	1.132.329	1.089.513	-3,8
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	616.479	551.986	-10,5	324.556	292.464	-9,9
URTEKO METATUA	616.479	551.986	-10,5	324.556	292.464	-9,9
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	783.820	670.185	-14,5	934.506	757.036	-19,0
URTEKO METATUA	783.820	670.185	-14,5	934.506	757.036	-19,0
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	568.263	502.460	-11,6	314.780	312.577	-0,7
URTEKO METATUA	568.263	502.460	-11,6	314.780	312.577	-0,7

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Gipuzkoak % 11,6 egin du atzera, neurri handi batean "Garraio-materiala" (-% 30,5 eta 44,4 milioi gutxiago) eta "Material elektrikoa" (-% 11,6, -21,3 milioi) jaitsi direlako.

Arabako esportazioak beste lurraldeetako joera bera izan du: % 10,5 jaitsi da, "*Material elektrikoa*" (-% 49,2, -27,5 milioi) eta "*Metalak eta beren manufakturak*" (-% 22,8) jaitsi direlako. Hala ere, "Garraio-materialak" 2020ko urtarrileko esportazio-bolumen ia bera izan du; izan ere, 347,1 milioi euro esportatu dira, eta horrek % 0,3ko beherakada arina baino ez du ekarri.

2021eko urtarrilean bost herrialde (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Herbehereak eta Italia) izan dira Euskal AEko bezero nagusiak, esportazio guztien % 54 hartu baitituzte (930,9 milioi). Horietarik lau EB-27koak dira, % 68,9 biltzen dituen erakundekoak. Ehuneko hori % 75,5koa izan litzateke EB-28 zaharraren kasuan.

Herbehereetara eta Portugalera egindako esportazioak % 8,1 eta % 5,6 hazi dira, hurrenez hurren. Europako gainerako herrialde nagusietara egindakoak, berriz, negatiboak izan dira urte batetik bestera, hala nola Frantziaren kasuan (-% 20,5), Erresuma Batuan (-% 10,0), Italian (-% 5,9), Belgikan (-% 1,4) eta Alemanian (-% 4,4). Hilabete honetan, Estatu Batuetara egindako salmentak % 49,6 jaitsi dira, eta Mexikora (-% 39,1) egindakoak ere gutxitu dira, baina gehitu egin dira Txinara (% 1,4), Errusiara (% 29,3) eta Turkiara (% 35,0) egindakoak, bolumen handienekoen artean.

Inportazioen erdiak EB-27tik etorri dira (% 50), eta desagertutako EB-28aren kasuan % 51,4ra iritsi lirateke. Europako herrialde garrantzitsuenen artean Italiak izan du gorakada positibo handiena (% 9,7), gero Alemaniak (% 2,2), Portugalek (% 2,1) eta Frantziak (% 0,7). Kontrako norabidean, Irlanda (-% 55,9) eta Erresuma Batua (-% 65,8) nabarmentzen dira. Munduko gainerako lekuetarako ere jaitsi dira Errusiatik (-% 38,1) eta Turkiatik (-% 82,5) etorritako inportazioak; aldiz, Mexikotik (% 113,0), Txinatik (% 19,5) eta Estatu Batuetatik (% 56,2) etorritakoak gehitu egin dira.

2021eko urtarrilean merkaturatutako produktuak

Xehetasunez aztertuz gero, ikusten da ezen 2021eko urtarrilean hamar **Muga-zerga Partida** nagusiek esportazioen % 43,6 bildu zituztela, 752,8 milioi euroko balio bateratuarekin.

Nabarmentzekoak dira igoerak "*Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak*" izenekoan (% 194,0 eta aurreko urtean baino 24,4 milioi gehiago) eta "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*" deritzonengan (% 13,5 eta 16,6 milioi gehiago).

Aitzitik, jaitsiera nabarmenak izan dira "*Petrolio-olio finduetan*" (-% 68,0, 143,5 milioi gutxiago) eta "*Hodiak eta profil hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*" deritzonengan (-% 47,1 eta 17,8 milioi gutxiago). Hilabete honetan, 10 partida nagusietarik erdiak automobilgintzaren sektorean dira, zeinek, urte arteko % 4,0ko hazkundearekin, aurreko urteko hilabete berean baino 21,9 milioi gehiago esportatzea lortu baitu.

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2021eko urtarila

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	1.968.561	1.724.632	100	-12,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	190.900	184.414	10,7	-3,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	122.909	139.500	8,1	13,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	136.446	127.680	7,4	-6,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	84.579	80.717	4,7	-4,6
Petrolioaren olio finduak	211.057	67.538	3,9	-68,0
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	37.228	37.784	2,2	1,5
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	12.575	36.972	2,1	194,0
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	29.870	29.751	1,7	-0,4
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	28.779	25.369	1,5	-11,8
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	4.898	23.031	1,3	370,2
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	18.441	22.769	1,3	23,5
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	37.849	20.012	1,2	-47,1
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	18.854	18.998	1,1	0,8
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	13.390	17.376	1,0	29,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	18.269	17.112	1,0	-6,3
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	5.755	16.099	0,9	179,8
Landu gabeko aluminioa	8.563	15.635	0,9	82,6
Burdinazko edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	16.181	15.302	0,9	-5,4
Ardoa, mahats freskoarena	13.445	14.157	0,8	5,3
Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	17.876	14.068	0,8	-21,3
Kraft papera eta kartoia, iztukatu edo estali gabekoa, bobina edo orritan	12.614	14.000	0,8	11,0
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	14.957	13.958	0,8	-6,7
Beste manufaktura batzuk gogortu gabeko kautxu bulkanizatukoak vulcanizado sin endurecer	13.198	12.752	0,7	-3,4
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	19.057	12.489	0,7	-34,5
Kobreko zakarrak eta hondakinak	15.780	12.407	0,7	-21,4

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)


Inportazioen kasuan eta muga-zergen partidetarako, pisu espezifiko handiena duen inportazioak, *"Petrolio edo mineral bituminosoaren olio gordinak"* izenekoak (guztizkoaren % 17,4), % 14,3ko atzerakada izan du.

Joera hori bera dute 25 muga-zergen partida nagusietarik 11k. Horien artean nabarmentzekoak dira *"Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarbu gaseosoak"* (-% 91,7), *"Elikagai eta edarien industrietan erabilitako gai usaintsuen nahasketak"* (-% 56,8) eta *"Industria kimikoko eta lotutako beste prestakin eta produktu batzuk"* (-% 50,7).

Beste alde, nabarmen hazi dira *"Soja-babak, baita hautsiak ere"* (% 287,2), hilabete honetan gehien inportatu den hirugarren produktua, eta *"Landu gabeko aluminioa"* (% 209,7).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62